

MARÍA JOSÉ JIMÉNEZ,

GITANAS FEMINISTAS POR LA DIVERSIDAD ELKARTEKO ZUZENDARIA

«Mundu mailan apenas hitz egiten den emakume ijitoen arazoez»

Begietako estalkia kendu nahi du María José Jiménezek (Murtzia, Espainia). Ijitoa, emakumea eta feminista da, ahotsa altxatuz bota ditu hiru ezaugarriok. Euren identitatea albo batera utzi gabe eredu anitzago eta askeagoa aldarrikatu nahi du ijito emakumeentzat. Payoei eskaera argia egiten die: alboratu ditzatela estereotipoak eta aurreiritziak.

| MALEN ALDALUR AZPILLAGA |

Emakume ijito feministak batu eta Espainia mailako elkarteak sortu duzue.

Orain dela bi urte sortu genuen elkarteak. Sortzaileok beste gizarte mugimendu batzuetatik gatoz eta aurretik ere ibili gara emakumeen eta aniztasunaren aldeko borroketan. Madril-en hasi ginen elkartzen, eta konturatu ginen zerbait desberdina eraikitzeko ordua zela. Ijito komunitatean hainbat gabezia daude arlo batzuetan, esaterako, askatasun sexualari edo genero indarkeriari dagokionean. Badirudi emakume ijitoak ez garela existitzen eta gure buruak ikustarazteko lanean hasi ginen. Gaur egun, baliabide bakarrak boluntario lanean diharduten emakumeak dira. Pixkanaka ari gara Espainiako Estatuan zabaltzen, momentuz honako lekuetan ditugu ordezkariak: Madril, Murtzia, Castelló, Valentzia, Ponferrada, Lugo, Granada eta duela gutxi Euskal Herriko bi ere batu zaizkigu, Bilbokoak.

Pikara Magazine aldizkarian egindako elkarrizketan diozue ijitoen estereotipo homogeneoarekin amaitu nahi duzuela.

Arazoa ez da ijito komunitatea homogeneoa izatea, gainerako gizarteak hala ikustea baizik. Horrelako aurreiritziekin egiten dugu topo etengabe. Pertsona jantzia izan zaitezke, beste edozein pertsonarekin lehiatzeko erreminta nahikoarekin, baina ijitoa izanik maiz zure jatorriak edo etniak pisu handiagoa dute. Antzeko zerbait gertatzen da emakume eta gizonen artean; emakume izateak ateak ixten dizkizu, bada imajinatu emakumea eta ijitoa bazara.



Komunikabideek errurik badutela uste al duzu?

Emakume ijitoak ikustarazi egin behar dugu geure burua eta aniztasuna agerian utzi. Azkenaldian, telebistan [kate espainiarretan] hainbat programa egin dituzte gure komunitateaz: *Palabra de gitano* (Ijitoen hitza), *Mi gran boda gitana* (Nire ijito ezkontza handia)... eta irudi hori zabaltzeak ez du laguntzen. Bestelako komunikabideetan ere antzekoa gertatzen da: ijitoon berri, ia beti, folklorearen edo gertakarien atalean ematen dute. Oso eskain-

tza murrizta da Espainiako Estatuan 600 urte daramatzan komunitatearentzat.

Komunikabideei erreparatuta, behinik behin, badirudi ijito komunitatean matxismoa nabi-riagoa dela.

Eskemak eraikitzeke orduan, ijito komunitateak gizartearen gehiengoaren patroia berak jarraitzen ditu. Gabezia handienak gainerako gizartearen berdina dira.

Baina ez da errealitate bera.

Ijito kulturari edo identitateari buruz hitz egiten dugunean ez dakigu ongi zeri buruz ari garen, jendea ez da definitzeko gai. Historikoki gizartearen gehiengoak inposatu dizkion mekanismoak direla eta, zaila izan da sartu gaituzten txoko txiki honetatik irtetea. Ijitoek ez gintuzten gainerakoen eskoletara bidali, geure eskolak genituen. Horrek izugarritzko albo-kalteak ekarri dizkigu eta belaunaldi bat baino gehiago beharko dira arazoari buelta emateko. Gainera, Espainiako Gobernuak apenas egiten duen esfortzurik gure egoera hobetzeko. Jendeak uste du dirurik ez dutelako txaboletan bizi diren ijitoak, hala bizi nahi dutelako daudela egoera horretan. Tamalgarria da. 600 urtez izan ditugu horrelako diskurtso sinplistik Espainian.

Aurreiritziak ditugu, beraz.

Matxismoa esplotatuago dago, noski, gainerako komunitate txikitik bezala. Baina ez da ijitoekin soilik gertatzen. Soziologiako edozein liburutan ikus daiteke komunitate txikiak defentsa mekanismoak erabiltzen dituztela euren herria ez desagerrarazteko, eta horrek sarri harresiak sortzen ditu. Errazagoa da ijitoak matxistagoak direla esatea. Errazagoa da, herri txikia garelako; Estatu honen gaitz guztiak ordaintzen ditugu. Ijito komunitate matxista den? Orokorrean bai, baina baita gainerako gizarte ere.

Eta zer egin horren aurrean?

Ez da batere erraza. Hasteko, erreferenteak falta zaizkigu ijito komunitatean. Gizarte mugimendu erreala eta parte-hartzaile baten

buru izango den talde bat behar dugu, eta ez daukagu. Hori da guk lortu nahi duguna: benetako gizarte mugimendua izatea. Autonomia erkidegoetara iritsi nahi dugu, eta mugimendu hau aurrera ateratzeko gai diren emakumeengana iritsi. Horrek denbora eskatzen du eta prozesua mantsoa da.

Zuen tradizioen artean badago bat bereziki polemikoa: zapiaren frogia.

Egia da gaur egun oraindik praktikatzela. Gure jarrera argia da: erabakitzeke eskubidea defendatzen dugu. Emakume ijitoa hobeto sentitzen bada frogia eginda, beti ere bere erabakia eta berea bakarrik izanda, aurrera. Alabaina, 12-13 urterekin ezkontzen

diren emakumeetan esaterako, astakeria iruditzen zaigu. Lehenbizi adingabea delako eta bigarrenik ikusi beharko litzatekeelako ea praktika hau egiazki ijito herrialdearen ezaugarri eta bereizgarri ote den. Hala balitz, Espainian ez zen gizonezko ijitorik egongo, emakumeok soilik mantenduko genuke ijitoon identitatea.

“Ijito komunitateak gizartearen gehiengoaren patroia berak jarraitzen ditu. Gabezia handienak gainerako gizartearen berdina dira”

Aniztasun hitza jarri duzue elkartearen izenean. Sexu aniztasunari eta askatasunari dagokionean zein da egoera?

Badaude ijito homosexualak noski, baina egia da daudenak baino gutxiago direla bistaratzera ausartzen direnak. Plataforma bat ere badago gai hau lantzen duena, baina bereziki gizonezko bikoteengan jartzen du arreta. Egia esan, egoera nahiko tamalgarria da. Errealitatea ezkutatzeko ahalegindu dira urte luzez, eta jendeak izugarri sufritu du; pentsa zer izan behar duen herrialde zapaldu baten barruan zapaldua izateak. Gure egitekoetako bat da sexu aniztasuna ikustaraztea. Neska edo mutil batekin oheratzeak ez du zure ijito identitatea inondik inora kaltetzen. Baina hau ulertzea kostatu egiten da komunitatean, oso gizarte tradizionaletik gatazela.

Gainerako mugimendu feministekin alderatuta badu desberdintasunik zuenak?

Guri gehiago ari zaigu kostatzen, gehienbat ez gaudelako diskurtso feministetan integratuta. Uneoro hitz egiten da emakume arabiarrez edo afrikarrez, baina mundu mailan apenas hitz egiten den emakume ijitoen arazoez.

Harremanetan zaudete hala ere.

Harremanetan gaude, eta gainera harremana ona da. Beste elkarteekin kolaboratzen dugunean gure egoeraz jabetzen dira eta elkarri laguntzen diogu. Hala ere, normalean harreman hori *a posteriori* sortzen da eta ez *a priori*. ■

Zokoan

“Ijito errumaniarrak gu orain 30 urte bezala daude. Ez dute harrera ona izan Espainiako Estatuan, ez gizartearen aldetik, ezta gure aldetik ere. Gu zigortu gintuzten bezala ari gara orain gu haiek zigortzen”.